

Yasmine Khris Maansri



### Nondik hasi?

Nola egiten da aurkezpen bat? Nire izen-abizena irakurri duzue gain honetan. Yasmine naiz. Ongi, behin deitura mahaigaineratuta, zeri jotzen diogu? Bitxiena ondoren etorri ohi dena da, eta gizaki gehienei aplikatzen diet, Euskal Herrian barna eta kanpoan: gure lanbide, ogibidearekin aurkezteko dugun joera. Eta, erreflexuak baino gehiago, pertsona berri batekin dugun topaketa bakoitzean egiten dugun galdera inkontzienteak eragiten du: «Zertan zabilta?». Gure iritzi politikoak edo zaletasunak baino gehiago, gure ofizioa aipatzen dugu, etiketarik fidelena balitz bezala, gure bizi hautuak, balioak edota historia pertsonala islatzen dituena. Egun, nekez erantzuten diot galdera horri: 1) lan desberdin anitz egiten ditut eta nik neuk zaila dut lan-izendapen batera mugatzea; 2) nahiago dut neure burua beste irizpide batzuen ikuspegitik definitu, interesgarriagoak baitira, nire ustez. Horietako bat da jatorria, nondik naturren. Zazpi urte hauetan Euskal Herrian bizi izan naiz, eta erreparatu diot solaskideek euren burua aurkezteko aipatzen duten hurrengoari: jaioterria. «Lizarrakoa naiz», «txantrearra», «Gasteizen jaio baina erabat nafartua». Utzidazue gauza bera

egiten: marseillarra, mediterraneo kostaldekoa naiz, baina jatorri konplexuagoa dut. Gurasoak aljeriarrak, Frantziara iritsiak XX. mende bukaeran. Aitaren aldetik, guziak amazig. Amari dagokionez, aita ere berbera, ama euskalduna (azken hori, hurrengo baterako).

Eta galdetuko didazue: zure jatorriek pertsona gisa definitzen zaituzte? Migrazioa zure biziaren alderdi esanguratsua bada, ezin zara zure arbasoen irizpide batera errotu. Hainbeste definitzen zaitu? Bada, ez; determinismoaren kontua interesatzen bazait ere, hemen jatorriak definitzen nau baina ez nau kategorizatzen, hau da, batez ere mekanismo soziologiko, kultural batzuk ulertzeko erabiltzen dut –lagunekin festa egiteko, ezkontzeko edo dantzatzeko ereduai buruzko elkarrizketa asko izan ditut Euskal Herriaren eta Magreben artean, adibidez–. Eta, jatorriari dagokionez, bada fenomeno bat liluratzen nauena eta duela gutxi ikasi nuena: fosilizazio kulturala.

## Diasporaren arrakala

Fosilizazio kulturala gertatzen da jendeak migratu, herrialde berrietan kokatu eta komunitateak sortzen dituen; poliki-poliki eta ia oharkabean fenomeno bat hazten da lurrazalaren azpian, diasporako edozein pertsonak nabaritu ahal izan duen bezala: nolabaiteko deskonexio bat sortzen da, ‘diasporaren arrakala’ (*diaspora gap*, ingelesez) dei genezakeena. Termino hori idazkera akademikoan existitzen ez bada ere, testigantza digital askok (anonimoak edo ez) serio hartzera eta teorizatzeraz garamatzate.

Adibide bat emanen dut: 90eko hamarkadan, nigeriar familia batek alde egin zuen, Irlandara joateko. Ondoren, etorkin bilakatu diren nigeriarrek seme-alabei joruberaz hitz egin izan diete, Nigeria osorako onarpen ofiziala duten hizkuntzetako bat. Baina haur horiek, Nigeriara joaten direnean, 80ko hamarkadako jorubera mota hori hitz egiten dute, ez gaur egun Nigerian mintzatzen den jorubera.

Akademiko batzuek analogia egiten dute, esanez diasporako taldea denboran izoztuta dagoela. Izan ere, migrazio ikasketetan, psikologia kulturean eta soziolinguistikari ikusten den fenomeno dugu. Diasporaren arrakala XX. mendearen amaierako deskolonizazioen ondoriozko migrazio-fluxuekin gertatu zen batez ere, zenbait pertsonak Iparraldeko herrialdeetara ihes egin zutenean, perspektiba ekonomikoan bila

edota antzinako koloniek emandako lan-aukerekin. Pertsona horiek beren jaioterriko kultur kapitala eramaten zuten haiekin; hau da, beraien jaioterriko hizkuntza, tradizioak, ohiturak eta praktikak xede-herrialdera eramaten zituzten, norberak maleta bat daraman bezala. Baina benetan egiten zutena garai hartako maleta hori une zehatz batean eramatea zen. Hala ere, gizarte bateko kultura, hizkuntza eta portaerak aldagai konstante bat dira, eboluzio bat –zeinaren abiadura handituz doan, nire ustez–. Horrek esan nahi du, emigratzean, populazio horiek praktika horien denboraren kapsula bat (ez-fisikoa) sortzen dutela.

Ondorioz, nahiz eta hizkuntza jakin, efektu zaharkitua du euren mintzaerak, kapital kultural eta linguistikoa ere kontuan hartuta. Horixe gertatzen da jatorri jamaikarra duen gazte estatubatuar batek sareko foro batean azaltzen duenean *Gal You a Lead* abestiaren letra osoa dakiela, 2000. urte hasierako *hit* bat, baina oso ‘ezjakina’ dela gaur egun Jamaikako *dancehall* eszenaz. Beste adibide batzuk ere elikatzen dira foro horretan bertan: Alemaniara emigratzen duen komunitate turkiarrarena, Turkian jada praktikatzen ez diren balio tradizionalak berekin eramanez, hala nola Alemaniako komunitate turkiarretan bertikatzen diren *ohorezko krimenak* –termino zaharkitua, jakina–.

Moussa Diop senegaldar kazetariak kronika umoretsu batean kontatzen duenez, 90eko hamarkadan Normandiara iritsitako hogeita hamar urte inguruko gazte senegaldar batzuek 90ekoan oso modan zegoen dantza bat (*Moulaye Thiéguine*) dantzatzen jarraitzen dute hamarkada bat geroago –XXI. mende honetan–. «Orduz geroztik, eguneratzea ez da aktibatu», azaltzen du. Hizkuntzalaritzan, Larry Selinkerrek 70eko hamarkadan teorizatu zuen ‘fossilizazio’ kontzeptua, diasporek batzuetan jatorrizko herrialdetik aspaldi desagertutako hitzak, esamoldeak erabiltzen jarraitzen dutela azaltzen duena.

Beste adibide bat da *Ask a Korean* blogak aipatutakoa: irakurle batek galdetzen dio zergatik Koreako emakume askori ez zaien gustatzen eguzkia hartzea, gehituz askok sarritan txapel oso zabalak jantzen dituztela, eta, oro har, beltzaran jartzea saihesten dutela. «Azal zuria izatea edertasunerako faktore handia al da Koreako emakume askorentzat?» galderarekin bukatzen du.

Horri erantzuteko, blogaren egileak Koreako historia garaikidera jotzen du: Korea 60ko hamarkadaren erdialdean hasi zen industrializazioan.

zaten, eta 70eko hamarkadarako herrialdeari ezin zitzaion gehiago nekazaritza-gizarte deitu. Ordurako, Koreako behe klaseko gehien-goak jada ez zuen landan lan egiten, baizik eta fabrika batean lan egiten zuen barnealdean. Ziurrenik, fabrikako langileek beren izendapenak zituzten gizartean zuten estatus baxua adierazteko. Baina beltzaranarekiko higuina, argi eta garbi, nekazaritza-ekonomian eta landa-lanean oinarritzen da. Edertasun-kanona 30 edo 40 urtez izan zen horrela, ustekabean emakume bat iritsi zen arte: Lee Hyori. Bost urte bitartean, Koreako pop kulturaren eszenako izarrik handiena izan zen, Britney Spearsen gailurraren parekoa ospe eta esposizioari dagokienez (gogoratu behar dugu 1999-2002 urteen artean Spearsek izan zuen garrantzia). «Korean, joaten zinen tokira joaten zinela, Hyoriren irudiak (oso sexyak!) nonahi ikusten ziren telebistako programa, bideoklip eta iragarkietan. Korean bizi den batez besteko hiritar batek, halako irudiak ikusita, poliki-poliki onar lezake gorputz beltzarana ere ederra izan daitekeela», dio egileak.

«Baina zer gertatzen da AEBetan bizi diren korearrekin?», segitzen du.

Korear gehienek 2000. urtearen hasieran emigratu zuten Estatu Batuetara, eta bertan ez zen egon Hyori izarraren esposizio masiborik. Korear amerikarrek, oro har, bazekiten nor zen Hyori, baina ez ziren erabat jabetzen haren osparen izaera apurtzaileaz, hain zuzen ere korear amerikarrek ez zutelako nonahi ikusten, Koreako korearrek egiten zuten bezala. Beraz, Korean korearrak edertasun estandar berri batera mugitzen ziren bitartean, korear amerikarrek korear edertasunaren 2000. urtearen aurreko estandarra mantendu zuten, denbora irazkor batean tratatuta egonen balira bezala.

Benetan interesgarria.

Euskal Herriko historiak anekdotaren bat baino gehiago izanen ditu diasporaren arrakalarekin. Baztango herri berdeetan autoz paseatzen gabiltzan aldiro, grazia egiten dit lagun batek: «Baina ze *horterada*, mesedez!», botatzen du indianoen etxeak apaintzen dituzten palmondo erraldoiak ikustean. Orduan nik ere imajinatzen dut haraneko pinu eta pago berde ilunen artean hain exotikoak diren zuhaitzak ekartzek bi mezu (gutxienez) helarazi behar zituela landatu zirenean: 1) «Hau oso garestia da, ongi begiratu», 2) «Modan dago han, ikasi pixka bat!». Gaur egun, nire lagunak zioenarekin bat nator neurri batean: Kaliforniako palmondoak nafar estapan kontrastatzeak pixka bat deslektu egiten nau, *too kitsch for me*.

## Txiste txar bat

Horrekin anekdota bat kontatuko dizuet, nire kasura ekarriz: nire gurasoek, 90eko hamarkadaren amaieran Frantziara iritsi ziren emigrante aljeriarrek, ez zuten etxean arabieraz hitz egiteko girorik ezarri. Izan ere, kontrakoa zen: frantsesez hitz egiten zen; hala ere, zenbait jargoi mantentzen zituzten –nostalgikoak, suposatzen dut–, hala nola abestiak, atsotitzak edo esamolde idiomatikoak. Umore kutsuko esamolde horiek, solaskidearen barrea bilatu nahian, errimegi garrantzi handia ematen zieten. Aitak telefono-dei bat egiten zuenean eta galdetzen ziotenean «*Shkun?*» («Nor da?», *dariyaz*, arabieraren magrebtar dialektoa), «*Bushun*» («Tapoia») erantzuten zuen, errima bat egin eta lagunari barre egitea beste zentzurik ez zuen erantzuna. Gauza bera zen «*Bslama*» («Agur») eta «*Sokkar blema*» («Azukre arazoa») erantzunarekin. Bada, horixe, XX. mende bukaerako txisteak. Analogia bat Espainian edo Frantzian? *Nasti de plasti*, *Guay del Paraguay* edo *La cagaste*, *Burt Lancaster* estilokoak gaztelaniaz, edo *La classe à Dallas*, *Ça te dérange*, *tête d'orange?* edo *Mon pote à la compote* frantsesez. Jadanik (aspaldidanik!) esaten ez direnak, alegia.

Kontua da etxe batean hazi nintzela ni, eta han jarraitzen zutela *hor-terada* (barka) horiek esaten, urtez urte, deiz dei, nire gurasoen bisitak sorterrira gero eta bakanago bihurtuz. Eta, niretzat, esaldi horiek ziren gauzarik *guai* eta modernoena (eta ikasteko eta gogoratzeko errazena, batez ere). Beraz, Aljeriara bakarrik joaten hasi nintzenean familia bisitatzera, txiste horiek egiten nituen, eta, jakina, ez ziren erabiltzen, eta denontzat deserosoa zen barrea eragiten zuten. Hogeita piko urteko neska bat tabernako aitona bat bezala hitz egiten, pentsa. Bertako hizkerari buruzko ezagutza-maila erakutsi nahi nuelako etsipena sortzeaz gain, komunitate baten eta haren diasporaren artean dagoen denbora-hutsuneaz pentsarazi zidan.

Ez da dena txarra, noski. Reddit gizarte-sare zerbitzuak kanal asko ditu gaiaren inguruan, eta, eztabaida horien artean, ohar batek arreta erakarri zidan. Honela zioen: «Alderdi positibo bat dago: tradizio, praktika edo portaera jakin batzuk mantentzen direnean, denboran izoztuta geratzen dira. Horrek erran nahi du hor galduak direla; etor-kin taldeek gordetzen dituzte». Ondare materiagabearen ikuspuntu batetik, arrazoi osoa ematen diot, baina onartu behar dut ez dudala oso argi talde batetik bestera, belaunaldi batetik bestera, ondare-ibil-

gailu izan nahi dudan. Etorkizunari begira gertatuko ote zait? Nola-koa izanen da nire ama hizkuntza frantsesaren maila, hamarkada batzuk barru ez banaiz itzultzen frantsesez bizitzera? Beste iruzkin batek egoera askoz errealistago batean jarri ninduen, komunitate mailara eramana: «Quebec da horren giza froga bat: Quebec frankofonoa, berez, europarrak Ameriketara iritsi zirenean frantsesek hitz egiten zuten bezala gauzatzea da». Hara! Luzaroan itxarondako diagnostikoa aurkitu izanaren sentsazioak gorputz osoa zeharkatu zidan.

Orain esanen diozue zeuen buruari zergatik kontatu dizuedan hau guzia. Aurkezpen txartel gisa erabiltzen dut zuekin. Beraz, hasierako galderaren harira, nire burua definitu beharko banu, esanen nizueke etorkinen alaba *boomer*-a naizela, baina hogeita hamar bete berriekin. Kontraesankorra da lehen begiratuan, baina azaldu egingen dizuet: *boomer*-a, nire jatorrizko kulturarekin 'desfasatuta' nagoelako sorterrian, eta hogeita hamar urtekoa, egutegi gregorianoak horrela nahi duelako. Azkenik, etorkinen alaba, beti hala izanen baita, determinista izan edo ez. Orain badakizue zerbait gehiago nitaz. Akaso heldu den zenbakian lanean zertan ari naizen esatea lortuko dut.